

# KANALAK

Gure bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, web orrialde bat sortu dugu eta

bertan telefono zenbakia eta email helbide bat ere jarri dugu. Beraz, bezeroek internet edo telefono bidez gurekin komunikatzeko aukera izango dute. Arazorenbat balego, telefonoz edo email bidez irtenbide bat aurkituko genioke.

Bezeroekin harremanetan jartzeko irratia, internet, aldizkariak, egunkariak,

telebista eta beste hainbat komunikabide erabiliko ditugu, eta horietan, gure telefono zenbakia eta web orria adieraziko ditugu. Lehenik, gure bezeroek hauetako zein komunikabide erabiltzen duen gehien aztertuko dugu ikerketa bat eginez. Ikerketaren emaitzaren bidez baliatuko gara gure proiektua bertan publikatzeko.

Web orrialdean bezeroek, beraien iritzia emateko aukera izango dute. Beraien iritzia kontuan harturik, eta beraien gustuko dituzten gauzak kontuan harturik mota ezberdinetako bizikletak egin ahalko ditugu.